

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 35/2021 Foru dekretua, uztailaren 27koa. Onestea familia harrerako neurria amaitutakoan, familia harrerari eta bizikidetzari laguntzeko konpentsazio ekonomiko aruntak arautzen dituen araudia**

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, zeinak gizarte zerbitzuen euskal sistemaren barruan gizarte zerbitzuak egituratzen baititu, Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei eta udalei emandako gaitasunak esleitzeko agintzen du. Haien artean, esplizituki barne hartzen dira foru aldundiei eta udalei haur eta nerabeen arreta eta babesaren arloan dagozkien eskumenak.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa arautzen duen urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 22. artikuluan arautzen duen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa garatzeko, Arabako Foru Aldundiari ematen dio familia harrera sustatzeko eta hari laguntza teknikoak emateko zerbitzua garatzeko eskumena. Eskumen hori dekretuaren I. eranskineko 2.7.6.1 fitxan azaltzen da. Eta fitxa horretan, helburuen artean, familia harrerarekin lotutako gastuak konpentsatzeko laguntza ekonomikoak izapidetzea dago.

Arabako Foru Aldundia da lurralde historiko honetan adingabeen babesaren ardura duen erakunde publikoa, eta, bereziki, berak bete behar ditu horrelako erakundeei dagozkien eginkizunak, hain zuzen ere, honako hauek esleitzen dizkietenak: azaroaren 11ko 21/1987 Legea, Adopzio gaietan Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilar buruzko Legearen zenbait artikulua aldatzen dituen; urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa, zeina 26/2015 Legeak aldatu baitzuen, otsailaren 18ko 3/2005 Legea, Haur eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzkoa, eta ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa, haurrak eta nerabeak indarke-riatik begiratzeko babes integralarena.

Horiek horrela, Kode Zibilaren 176-bis artikulua erantsiak honako hau aitortzen du: "Adopzio-helburuko zaintzaileek familia harreragileek dituzten eskubide eta betebeharrak berak izango dituzte".

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren helburuetako bat da bere eskumen esparruan gizarte zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta gauzatzea. Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiaren sailak 2019-2023 legealdirako zehazten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren zortzigarren xedapenak haren funtzioak eta eskumenak zehazten ditu: hirugarren adina, desgaitasuna, haurrak eta familia, oinarrizko gizarte zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta ordenamendu juridikoak ezartzen dizkion gainerakoak. Halaber, ezartzen du Gizarte Politiken Sailari atxikita dagoela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE) eta haren helburuak honako hauek direla: gizarte zerbitzuei lotutako jarduerak antolatzea, kudeatzea, ematea eta gauzatzea Arabako Lurralde Historikoan.

Abenduaren 11ko 179/2018 Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak familia harrera arautu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrela, familia harrera motak eta foru aldundiek haien babespean dauden adingabeen familia harrerako prozeduretan jarraitu beharko duten jarduera prozedura ezarri zituen. Araudi berri horren xedea da biztanleengan eragina izan dezakeen edozein arau eskatzen duen segurtasun juridikoko printzipioa eta EAEko herritar guztien berdintasun printzipioa indartzea da, bizi diren lurralde historikoa edozein dela ere.

Familia hartzaileek harrera programetan beren gain hartzen dituzten zereginak direla eta, gastu ekonomikoei aurre egin behar izaten diete, adingabeen beharrak asetzeko. Kostu ekonomiko horiek ez lukete eragin negatiborik izan beharko adingabeak harreraren hartzeko erabakian, ez eta hartutako adingabeak jaso behar duen arretan ere.

Horregatik, pertsona edo familia hartzaileek familia harreraren ondorioz beren egoera ekonomikoan gainkargarik izan ez dezaten, Arabako Foru Aldundiak laguntza ekonomikoko sistema bat ezarri du familia hartzaileentzat. Sistema hori, familia edo pertsona hartzaileek duten eskubide gisa onartuta dago aipatutako 179/2018 Dekretuaren 11.p. artikuluan.

Gaur egun, Arabako Foru Aldundiak Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 15eko 22/2014 Dekretua du, familia harrerarako laguntza ekonomikoena eta familia harreraren osteko jarraipenarena. Haren bidez, adingabeen pertsona edo familia hartzaileek jaso litzaketan ezohiko konpentsazio eta laguntza ekonomikoak jasotzeko baldintzak eta prozedura arautzen dira.

Era berean, 2020ko ekainaren 16an, Foru Gobernu Kontseiluak 21/2020 Foru Dekretua onetsi zuen, familia harrerari eta bizikidetzari laguntzeko ezohiko gastuetarako dirulaguntzen oinarri orokorrak arautzen dituena.

Aurrekoa kontuan hartuz, beste foru dekretu bat eman behar da, aplikatzekoa den araudi berrira egokitzeko eta harrera espezializatua sustatzeko. Hauek dira foru dekretu berri horrek jasotzen dituen alderdi berriak:

- Konpentsazio arruntari dagokion zenbatekoa eta premia bereziak dituzten edo egoeran berezian dauden adingabeak hartzeko zenbatekoa handitu dira.
- Premiazkotzat hartzen diren harrerarako konpentsazioa onartu da.
- Familia harrera espezializatuaren ondoriozko konpentsazioa hobetu da, dedikazio premiaren eta lan jardunarekiko bateragarritasunaren arabera berezita.
- Familia zaintzaileek konpentsazio ekonomikoa jasotzeko duten eskubidea onartu da.
- Adin nagusitasuna lortuta bizikidetzaren mantentzen denean laguntzarekin jarraitzeko baldintzak aldatu dira, lan jarduerarekin bateragarri eginez.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 7. artikulua eskumena eman dio Foru Gobernu Kontseiluari foru arauak, autonomia erkidegoetako legeak eta Estatuarenak garatzeko arauak emateko.

Araudi hori bat dator Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin eta Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, emakume eta gizonen berdintasun printzipioa betetzeari dagokionez.

Horregatik, Arabako Gizarte Politiken Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea behin familia harrerako neurria amaitutakoan familia harrerari eta bizikidetzari laguntzeko konpentsazio ekonomiko arruntak arautzen dituen araudiari. Haren testua foru dekretu honen eranskinean jasotzen da.

Xedapen gehigarri bakarra. Aplikatzeko araudi gehigarria

Araudi honetako konpentsazioak onartu, ukatu, aldatu edo azkentzeko prozedura araudi honetan ezarritakoari lotuko zaio. Araudi honetan xedatzen ez den guztian, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa beteko da.

Xedapen iragankor bakarra

Pertsona hartzaileei foru dekretu hau indarrean sartu aurretik aitortutako konpentsazio arruntak haiek indarrean sartu eta hurrengo hilabetearen 1. egunean eguneratuko dira.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratzen da apirilaren 15eko 22/2014 Foru Dekretua, zeinaren bidez onespena ematen baitzaio familia harrerari laguntzeko konpentsazioak eta dirulaguntzak arautzen dituen araudiari.

Azken xedapena. Lehenengoa. Indarrean sartzea

ALHAOn argitaratzen denetik 20 egun igaro eta gero jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Azken xedapena. Bigarrena. Argitalpena

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 27a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**

## ERANSKINA

**BEHIN FAMILIA HARRERAKO NEURRIA AMAITUTAKOAN FAMILIA HARRERARI  
ETA BIZIKIDETZARI LAGUNTZEKO KONPENTSAZIO EKONOMIKO ARRUNTAK  
ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA ETA ADOPZIO HELBURUKO ZAINZTA**

## I. kapitulua. Xedapen orokorrak

**1. artikulua. Xedea**

Araudi honen xedea da, alde batetik, Arabako Lurralde Historikoan hurrengo 2. artikuluan jasotzen den edozein familia harrera gauzatzen duten pertsonak, eta bestetik, familia harreran adingabe bat izan duten eta, adin nagusitasunera helduta, hartutako pertsonarekin bizitzen jarraitzen duten pertsonak jaso ditzaketen konpentsazio ekonomikoak arautzea, foru dekretu honen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta adopzio helburuko zaintzak eratzetik sorturikoak ere.

**2. artikulua. Onuradunak**

Kompentsazio arrunt hauen onuradun izan daitezke egoera hauetako edozeinetan dauden pertsonak:

- a) Arabako Adingabearen Kontseiluak sustatutako familia harrera bat eginda izatea, adingabeen alde, indarreko legediari jarraituz.
- b) Adin nagusitasuna beteta, familiarekin bizitzen jarraitzen duen adingabe bat familia harreran izatea, foru dekretu honen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- c) Adopzio helburuko zaintza egin izana, Arabako Adingabearen Kontseiluak sustatuta.

**3. artikulua. Familia harrera eta adopzio helburuko zaintza motak**

1. Familia harrera motak eta baldintzak abenduaren 11ko 179/2018 Dekretuaren 7. eta 8. artikuluetan ezarritakoak dira. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko familia harrera arautzen da.

a. Familia harreraren iraupena eta helburuak kontuan hartuta, harrera mota hauek daude:

- a) Premiazko familia harrera.
- b) Aldi baterako familia harrera.
- c) Familia harrera iraunkorra.

b. Adingabeak pertsona edo familia hartzaillearekin duen lotura eta haren ezaugarriak kontuan hartuta, harrera mota hauek daude:

- a) Familia zabala.
- b) Norberarena ez den beste familia bat.

Harrera espezializatua izan daiteke, baldin eta indarrean den araudian ezarritako ingurubarrak eta baldintzak betetzen badira.

2. Adopzio proposamena aurkeztu aurretik, eta Kode Zibilaren 176 bis artikuluan xedatutakoaren arabera, babes erakunde publikoak adopzio helburuko zaintza eskuordetuko du, harik eta adopzioaren ebazpen judiziala eman arte. Adopzio helburuko zaintzaileek familia harreragileek dituzten eskubide eta betebeharrak izango dituzte, indarrean den legediaren arabera.

**4. artikulua. Bizikidetzak, familia harrerako neurria amaitutakoan**

Familia harreran daudenean eta hamazortzi urte betetzen dituztenean adingabeen autonomia bultzatzeko, pertsona edo familia hartzaillei emandako konpentsazio ekonomikoak, dekretu honetan araututakoak, urte eta erdi mantendu ahalko dira, hartutako pertsonak hamazortzi

urte betetzen dituenetik zenbatzen hasita, betiere ados agertzen badira, eta baldintza hauek betetzen badira:

a) Hartutako pertsonak hartu zuen familiarekin etenik gabe bizitzen jarraitzea adina nagusitasun bete ondoren.

b) Hartutako pertsonak adin nagusitasuna bete baino urtebete lehenago, gutxienez, izatea formalizatuta familia harrera.

c) Hartutako pertsona Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Adingabeen Arloaren harrera osteko jarraipen programan egotea.

d) Hartutako pertsona ordaindutako lan jarduera batean ez aritzea, edo hala bada, bere diru sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak izatea.

### **5. artikulua. Helburua eta izaera**

1. Araudi honetan arautzen diren konpentsazio arruntan helburua hau da: alde batetik, hartuta edo adopzio helburuko zaintzan dagoen adingabea artatu eta zaintzeagatik sortzen diren gastu arruntetan laguntzea, haien artean mantenua dagoela; bestetik, hartuta egon diren gazteen gastuetan laguntzea, adin nagusitasuna betetakoan familia hartzailearekin bizitzen jarraitzen badute.

2. Konpentsazio arruntak osagarriak dira, eta indarreko legedian ezarrita dauden edo ezar daitezkeen, eta hartutako adingabeari edo familia harrera amaitutakoan haiekin bizitzen jarraitzen duen gazteari egokitu ahal zaizkien gizarte baliabide eta prestazioekin bateragarriak. Era berean, bateragarriak izango dira adingabeari legezkiokoen mantenu pentsioekin.

3. Konpentsazio arruntak finalistak eta besterenezinak dira. Ezingo dira betebeharren berme gisa eskaini, ezta osorik edo zati batean laga, konpentsatu, deskontatu, atxiki edo enbargatu ere, salbu eta kontzeptu beragatik bidegabeki jasotako konpentsazioak itzularazteko.

## **II. kapitulua. Konpentsazio ekonomiko arrunta**

### **6. artikulua. Konpentsazio ekonomikoaren zenbatekoak**

1. Hauek dira premiazko familia harrerako, aldi baterako familia harrerarako eta familia harrera iraunkorrerako ezarritako konpentsazioak, bai familia zabalean, bai besteren familian, bai eta adopzio helburuko zaintzetarako ezarritakoak ere:

a. Oro har, harreran edo adopzio helburuko zaintzan hartutako adingabe bakoitzeko, hilean 459 eurokoa izango da konpentsazioa.

b. Premia bereziak dituen edo egoera berezian dagoen harrerako adingabearen kasuan, hilean 685 eurokoa izango da konpentsazioa.

c. Premiazko harrera kasuetan, harrerako adingabe bakoitzeko, hilean 650 eurokoa izango da.

d. Familia harrera espezializatuaren modalitatean, indarreko legediaren arabera eskatzen den kualifikazio, esperientzia eta prestakuntza espezifikoa duen pertsona edo familia batek gauzatzen duenean, dagokion konpentsazioari 800 euroko beste konpentsazio ekonomiko bat gehituko zaio, baldin eta familia harreran emandako denbora lan jarduerarekin bateragarria bada.

e. Halaber, familia harrera espezializatuaren modalitatean, indarreko legediaren arabera eskatzen den kualifikazio, esperientzia eta prestakuntza espezifikoa duen pertsona edo familia batek gauzatzen duenean, dagokion konpentsazioari 1.500 euroko beste konpentsazio ekonomiko bat gehituko zaio, baldin eta familia harreran emandako denbora eskusiboa bada eta ezin bada bateratu lan jarduerarekin.

1 a) apartatuari dagokionez, zenbatekoak ehuneko 10 murriztuko dira familia harreran edo adopzio helburuko zaintzan dagoen bigarren adingabetik aurrera.

2. Familia harrerako neurria amaitutakoan bizikidetzako egoerarako konpentsazio ekonomikoaren zenbatekoa, artikuluan honen lehen apartatuan ezarritakoa izango da.

3. Aurreko apartatuan ezarritako konpentsazio arruntaren zenbatekoak hilabete natural osoei dagozkie. Hilabete baino aldi laburragoagatik ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, hileko zenbatekoa zati 30 egingo da eta zatidura hori kasuan kasuko egun kopuruaz biderkatuko da.

#### **7. artikulua. Prestazio arruntaren prozedura**

Kompentsazio arruntak onartzeko prozedura ofizios hasiko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, Arabako Lurralde Historikoan familia harreraren bat edo adopzio helburuko zaintzaren bat formalizatu eta gero, eta kudeaketa lanak egingo dira betiere kontuan hartuz genero ikuspegia.

Familia harreraren adingabe bat izan duten, eta adin nagusitasuna betetakoan, foru dekretu honen 3. artikuluan ezarritako adinera arte, harekin etengabe bizitzen jarraitzen duten pertsonentzako konpentsazio arruntaren kasuan, prozedura hasi aurretik, harreragileek eskaera bat egin beharko diote Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzaileari.

#### **8. artikulua. Kompentsazio arruntaren hasiera eta amaiera**

1. Familia harreraren bat edo adopzio helburuko zaintzaren bat formalizatuta duten pertsonentzat:

a) Harrera edo zaintza formalizatzen den egunean hasiko da konpentsazio ekonomikoa.

b) Kompentsazio ekonomikoaren amaiera hartutako pertsonak adin nagusitasuna betetakoan iritsiko da, edo familia harrerako edo adopzio helburuko zaintza neurria amaitutakoan.

2. Adin nagusitasuna bete ondoren, adingabea familia harreraren etengabe izaten jarraitu duten pertsonen kasuan:

a) Kompentsazio ekonomikoa adin nagusitasun hori betetzen den egunetik aurrera hasiko da, edo eskaera egiten den egunetik aurrera, baldin eta hura bete ondoren egiten bada.

b) Kompentsazio hori amaituko da foru dekretu honen eranskinen 4. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen ez direnean, gehieneko aldiari nahiz berariazko baldintzei dagokienez.

#### **9. artikulua. Ordaintzeko era**

Kompentsazio arrunta banku transferentziaz ordainduko da hilero, hilaren lehenengo zazpi egunen barruan.

#### **10. artikulua. Kompentsazio arruntaren onuradunen betebeharrak**

Betebehar hauek izango dituzte konpentsazio arruntaren onuradunek:

a) Kompentsazio arrunta, ematen den xederako erabiltzea.

b) Kompentsazio arrunta emateko eskatu ziren baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada eta aldaketa hori laguntza aldatu, eten edo azkentzeko arrazoia izan badaiteke, aldaketa jakinaraztea, hura gertatzen den egunetik 15 eguneko epean gehienez ere.

c) Bidegabeki jasotako diru kopuruak itzultzea, interes eta guzti, hala behar denean.

d) Administrazioaren aurrean agertzea eta hari laguntzea, hau da, emandako konpentsazio arruntaren inguruan egiten diren egiaztapen eta jarraipen ekintzei men egitea eta eskatzen diren argibideak eta frogak ematea.

e) Oinarri hauen eta araudi aplikagarriaren edukitik ondorioztatzen den beste edozein.

**11. artikulua. Ebazpena**

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendaritza-kudeatzailetzari dagokio araudi honen babesean izapidetutako espedientei buruzko ebazpenak ematea.

2. Ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek argitu behar ditu:

- a) Konpentsazio arruntaren bidezotasuna edo bidegabetasuna.
- b) Konpentsazio arruntaren zenbatekoa, xedea, eta ordaintzeko modua.
- c) Ebazpena emateko epea.

3. Ebazpena eskatzaileari jakinarazi beharko zaio, gehienez, hiru hilabeteko epean, familia harrera formalizatzen denetik. Epealdi horretarako ez da kontuan hartuko eskatzaileari egotz da-kizkioken arrazoiengatik espedientea geldituta dagoen denbora. Izapideetan horrela gertatzen diren atzerapenak idatziz azaldu behar dira.

4. Aurreko zenbakian aipatutako epea esanbidezko ebazpenik eman gabe igarotzen bada, eskaera aintzat hartu dela ulertuko da. Dena dela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak esanbidezko ebazpena emateko betebeharra du.

**12. artikulua. Konpentsazio arruntak ezeztatzeko edota azkentzeko arrazoiak**

Araudi honetan arautzen diren konpentsazio arruntak ezeztatzeko edo azkentzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

- a) Konpentsazio arrunta emateko garrantzitsuak diren datuak faltsuak izatea edo ezkutatzea.
- b) Eskatzaileak berariaz uko egitea.
- c) Araudi honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.
- d) Konpentsazio arrunta jasotzeko eskatutako baldintzak ez betetzea, edo behin-behinean edo betiko galtzea.
- e) Familia harrerari, adopzio helburuko zaintzari edo bizikidetzari uztea.
- f) Konpentsazio arruntaren indarraldia amaitzea.
- g) Konpentsazio arrunta, ematen den xederako ez erabiltzea.
- h) Bidezko beste edozein arrazoi.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak uste badu jaso behar ez ziren zenbatekoak jaso direla, dirua itzultzeko espedientea hasiko du.

Dirua itzultzeko prozedura hasi ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak interesdunari jakinaraziko dio prozedura hasi dela, eta erreklamazioa eragin duten arrazoiak azalduko dizkio. Halaber, gehienez ere 10 egun balioduneko epea emango die interesdunei alegazioak aurkezteko.

Alegazioak jaso ondoren edo adierazitako epea alegaziorik egin gabe igaro bada, itzultze prozedura hasi eta gehienez ere 3 hilabeteko epean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zuzendaritza-kudeatzailetzak ebazpena emango du, eta, hala badagokio, dagozkion zenbatekoak itzultzeko betebeharra deklaratu du, adierazita zein diren aplikatu beharreko interesa, itzultze hori egiteko modua eta epea eta administrazioarekin sortutako zorra ez ordaintzearen ondorioak. Itzultzeko betebeharrak ez dagoela iritziz gero, zuzendaritza-kudeatzailetzak horri buruzko ebazpena emango du.

Az kentze kausa batetik badator itzultze prozedura, hura ez da hasiko az kentze prozedura irmoa izan arte administrazio bidean.

**13. artikulua. Konpentsazioa aldatzea**

Konpentsazio arrunta emateko kontuan izandako baldintzak aldatzen badira, emakida erabakia ere aldatu egin ahal izango da, eta haren ordeztu beste bat eman.

Baldin eta aldaketa horrek berekin badakar konpentsazio osoaren nahiz zati baten kobrantza bidegabekoa izatea, aurreko artikuluan ezarritako moduan jokatu da.

**14. artikulua. Administrazio errekursoak**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendaritza-kudeatzailetzaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekursoa aurkeztu ahal izango zaio foru erakundearen Administrazio Kontseiluari. Horretarako, interesdunak hilabete izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. Artikuluetan ezarritakoaren arabera.